Ilusioa sortu loteria erosiz?

Zenbat diru gastatzen duzu Gabonetako loterian? Ba al dakizu zein probabilitate duzun sari potoloa zeuri egokitzeko? *Berria* egunkariko erreportaje baten bidez, Gabonetako loterian jokatzera zerk bultzatzen gaituen aztertu dugu.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Sariren bat irabazi baduzu, esperientzia idatziz kontatu.**
- **Erreportajearen ulermen xehea landu.**
- **NOLA? galderari erantzuteko aukerak ikasi, -(e)z kasu-marka landu.**
- **Gaiaren inguruan iritziak ahoz eman, eta aldeko zein kontrako ideiak argudiatu.**
- **Iritzi-artikulu laburra idatzi euskaltegiko aldizkarirako.**



Adimen artifizialak sortutako irudia

Irakurri aurretik

BAKARKA

1. Zorionekoa zu!

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irabazi al duzu inoiz sariren bat? Noiz, non, nola? Konta ezazu zeure esperientzia labur.

Irabazi al duzu inoiz sariren bat?
NOLA?

- **Loteria erosiz**
- **Zozketa batean parte hartuz**
- **Lehiatuz**
- **...**



Eskolan, elkartu ikaskide batekin eta irakurri idatzitakoa.

BAKARKA

2. Zergatik erosten duzu loteria?

Irakurri arretaz *Berria* egunkariko erreportajea. Ondoren, aukeratu ideia nagusia eta esan proposatutako baieztapenak egia ala gezurra diren.

Zergatik erosten duzu loteria?

berria

Gabonetako loteriak ilusioak eta emozioak pizten ditu Euskal Herrian. Ausazko jokoetan irabazteko aukerak oso txikiak diren arren, batik bat tradizioak eta presio sozialak bultzatzen du jendea parte hartzera.



Unai Etxenausia Uribarren

Abenduaren 22ko eta Errege eguneko Gabonetako loteriaren zozketek milaka pertsona erakartzen dituzte, eta urteko ekitaldi nagusietako bat dira Hego Euskal Herrian. Urtero, familia, lagun eta lankideak telebista eta irratien aurrean biltzen dira, San Ildefonsoko haurrek haien zenbaki irabazlea abestuko duten itxaropenaz. Tradizioaren liluraren eta ikuskizunaren magiaren gainetik, loteria ez da zerbait arrazionala: baina nola lortzen du loteriak hainbeste jende erakartzea, irabazteko probabilitatea izugarri txikia izan arren?

Erantzuna ez dago soilik kalkulu probabilistikoan, baizik eta emozioekin, gizarte ohiturarekin eta kulturarekin lotutako faktore konplexuetan, loteria erosteko ekintza apustu hutsa baino askoz gehiago bilakatzen baita. Ikuspegi estatistikotik, loteria erosiz jokatzea ez da erabaki logiko bat. Lehen saria irabazteko probabilitatea 100.000tik bat da, hau da, % 0,001. Horrek esan nahi du 100.000 pertsonatik bakarrak irabaziko duela lehen saria. Sariren bat irabazteko aukera orokorra, berriz, % 15 ingurukoa da; hau da, jokatzen den zenbatekoaren parte bat bueltan jasotzeko aukera dago, baina sariketan parte hartzen duten gehienek ez dute nahikoa irabazten jokatutako dirua berreskuratzeko.

Baina, estatistikak alde batera utzita, beste faktore batzuek gehiago eragiten diete herritarren erabakiei. Psikologoen arabera, loteria erosteko arrazoi nagusiak emozioekin lotuta daude. Top Doctors mediku taldeak argitaratutako ikerketaren emaitzen arabera, sariren bat irabazteko itxaropenak garunean kimikoki eragiten du jendea urtez urte parte hartzera bultzatzeko: «Eta tokatzen bada?, esaldiak harrapatzen gaitu. Sinesmenek eta sineskeriek ere jolasera bultzatzen gaituzte». Loteriak, beraz, erritual eta superstizio ugarirekin bat egiten du. Askok zenbaki esanguratsuak aukeratzen dituzte, hala nola jaiotze datak edo urteurrenak. Beste batzuek «zorioneko» administrazioetan erosten dituzte, aurretik sari handiak eman dituztenetan. Loteria erosteko arrazoi handienetako bat ilusioa ere bada. Zozketaren aurreko egunetan, sariren bat irabaziko balu zer egingo lukeen imajinatzen du jendeak: hipoteka ordaindu, munduan zehar bidaiatu, familiari edo lagunei lagundu... Amets horiek, iragankorrak izan arren, garrantzi emozional handia dute.

(moldatua)

BAKARKA

Zein da ideia nagusia?

a) Loteria negozio ekonomiko hutsa da.

b) Jendeak emozioengatik eta ohituragatik erosten du, logikagatik baino gehiago.

c) Loteria irabazteko aukerak handiak dira.



Pixabay

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

Esan ondoko baieztapenak egia ala gezurra diren.

a)	**Gabonetako loteriak emozio handia sortzen du Euskal Herrian.**	E	G
b)	**Tradizioak eta diru-goseak bultzatzen dute jendea parte hartzera.**	E	G
c)	**Abenduaren 22ko zozketa ekitaldi garrantzitsua da Hego Euskal Herrian.**	E	G
d)	**Ez da ohikoa Hego Euskal Herrian telebista edo irratiaren bidez zozketa jarraitzea.**	E	G
e)	**Irabazteko probabilitatea ez da handia.**	E	G
f)	**Lehen saria 100.000 pertsonatik bakarrak irabaziko du.**	E	G
g)	**Sariren bat irabazteko aukera % 15 ingurukoa da.**	E	G
h)	**Ikerketa batek dio irabazteko itxaropenak garunean eragiten duela.**	E	G
i)	**Jendeak superstizio eta errituletara jotzen du zenbakiak aukeratzeko.**	E	G
j)	**Zozketaren aurreko egunetan jendea urduri egoten da.**	E	G



Eitb

Partekatu erantzunak talde handian.
Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

Irakurri ondoren

TALDEAN

3. Aztertu egitura

Elkartu ikaskide batekin eta erreparatu ondoko esaldiari; jarraian, osatu esaldiak forma egokia txertatuta.

"...loteria **erosiz** jokatzea, ez da erabaki logiko bat."

1. *Kirola eginez* kilo batzuk galdu ditut, azken asteotan.
2. Liburuak _____ gauza asko ikas daitezke.
3. Esaten dutena arretaz _____ erraz identifika daitezke albiste faltsuak.
4. Zu zinela _____, atea ireki nion.
5. Tekla hori _____, bolumena igo edo jaits daiteke.
6. _____ ikasten da ibiltzen.



Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

-(e)z KASU-MARKA

-*(e)z* kasu-marka, besteak beste, honako hauetan erabiltzen da:

a) Perpaus nagusian NOLA galderari erantzuteko:
Irakurriz ikasten da irakurtzen. (Nola ikasten da irakurtzen?)
Oinez etorri zen. (Nola etorri zen?)

b) Perpaus nagusian NOIZ (Nola) galderari erantzuteko, bi ekintzen artean aldiberekotasuna gertatzen denean; hau da, bi ekintzak aldi berean gertatzen direnean:
Ardoa edanez hitz egingo dugu (Noiz hitz egingo dugu?: ardoa edan bitartean).

Bestalde, ekintza bat bestearen ondoren gertatzen denean edo ekintza bat beste baten ondorio denean, beste egitura batzuk erabiltzen dira::
**Hori esanez, atea itxi zuen.* ✗
Hori esan, eta atea itxi zuen. Hori esanda, atea itxi zuen. ✓
**Hori ikusiz, haserretu egin zen.* ✗
Hori ikusita, haserretu egin zen. ✓

TALDEAN

Aurreko azalpena irakurri ondoren, esan ondoko esaldiak zuzenak ala okerrak diren.

1. **Musika entzunez ikasten da lezioa.**
2. **Zigarroa errez sartu da gelan.**
3. **Txurroak salduz ateratzen du bizimodua.**
4. **Kolpeak hartuz ikasten da oinez.**
5. **Hegazkin bat erori da, ehun pertsona hilez.**
6. **Hamarna kopa hartu genituen, egundoko mozkorra harrapatuz.**

Erantzun zuenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Badira forma gehiago NOLA? galderari erantzuteko; jarri adibideak ereduei erreparatuta.

partizipioa + -ta/-ik egitura:
*Kirola **eginda/eginik** kilo batzuk galdu ditut, azken asteotan.*

---

partizipioa + -ka eta -z adberbio-atzizkiak: korrika, deika, barrez, negarrez...
Loteria *tokatu zaigula **oihuka/oihukatuz** etorri da etxera.*

---


partizipioa + -n kasu-marka singularra: egonean, kantuan, lanean, jolasean...
*Arratsaldea **lanean** pasatu dugu, baina dena bukatzea lortu dugu.*


Zalantzarik baduzu, galdetu irakasleari.

4. Loteriazalea al zara?

TALDEAN

Elkartu hiruko taldeetan, eta komentatu ondoko galderak.


wikimedia commons



Partekatu erantzunak talde handian.

TALDEAN

Jarraitu hiruko taldeetan, eta pentsatu argudioak kontrako bi ideiak defendatzeko: loteria kaltegarria ala positiboa da gizartearentzat? Zergatik?

LOTERIA KALTEGARRIA DA

Dirua xahutzeko besterik ez du balio.

LOTERIA ONURAGARRIA DA

Itxaropenak garunean kimikoki eragiten du.



Pixabay

Partekatu erantzunak talde handian, eta atera ondorioak.

BAKARKA

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Idatzi 100 hitz inguruko iritzi-testua euskaltegiko aldizkarian argitaratzeko. Horretarako, "Loteria erosiko zenuke? Ilusioa ala engainua?" gaiari erantzungo diozu. Ongi argudiatu iritzia.

Eman irakasleari zuzentzeko.

ERANTZUNAK

2. Zergatik erosten duzu loteria?

- b)
- a- egia; b- gezurra, tradizioak eta presio sozialak; c- egia; d- gezurra, ekitaldi nagusietakoa da, eta urtero familia, lagun eta lankideak telebista eta irratien aurrean biltzen dira; e- gezurra, izugarri txikia da; f- egia; g- egia; h- egia; i- egia; j- gezurra, hipotesiak egiten ditu, ametsak.

3. Aztertu egitura

- 1.- kirola eginez; 2.- irakurriz; 3.- entzunez; 4.- pentsatuz; 5.- sakatuz; 6.- eroriz
- 1.- zuzena; 2.- zuzena; 3.- zuzena; 4.- zuzena; 5.- okerra (*Hegazkin bat erori eta ehun pertsona hil dira*); 6.- okerra (*Hamaika kopa edan genituelarik, egundoko mozkorra harrapatu genuen).*

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Ausazko jokoetan. Zoriaren, probabilitate hutsaren, mende dauden jokoetan.
Sariketa. Zozketa.
Garunean kimikoki eragiten du. Burmuinean, buru barruan, eragiten du.
Sinesmenek eta sineskeriek. Zer sinesten dugun. Atzizkiaren arabera, sinesten dugun horren zilegitasuna adierazten dugu, betiere nork bere ikuspegi subjektiboaren arabera: -men, benetakoa; -keria, faltsua.
Zenbaki esanguratsuak. Zerbait “esaten” diguten zenbakiak: jaiotza-eguna, herriko posta-kodea...
Amets iragankorrak. Laster pasatzen diren ametsak.